04. Hiri-tokiak

1. Sarrera. Hiri-espazioaren sorrera eta elementuak (Juli Esteban Nogueraren arabera):
    - Hiriak lurraldea eraldatuz sortzen dira, lurraldea urbanizatuz, alegia, URBANIZAZIOA delako prozesuaren bidez. Prozesuaren gakoa publiko eta pribatu kategorien sortzean datza.
    - Landa-espazioa: Bereizi gabea, publiko-pribatu kategoriei dagokionez. Bideak eta ibaiak ezik, jabego pribatuko espazioez osatua dago. Jabegoen pribatutasuna, hala ere, "ahula" da (ez daude hesituak, haien artean igaro daiteke).
    - Hiri-espazioa: Era argian bereizia dago bi jabaritan: publikoa (kaleak, plazak eta bestelako espazio publikoak) eta pribatua (orube eraikigarriak, hau da, espazio partzelatua). Orubeon jabegoen pribatutasuna "sendoa" da (itxitak daude, sarbidea ez da librea). Hala ere, esan beharra dago espazio partzelatu batzuk jabego publikokoak izan daitezkeela ere bai (ekipamendu publikoak edo zuzkidurak esaten zaie: udaletxea, gizarte-etxe bat, udal-polikiroldegi bat, hospitale bat…). Kaleak, plazak eta bestelako espazio publikoak, aldiz, erabat publikoak dira.
    - Hortaz, urbanizazio prozesuak lurzorua bi kategoriatan banatzen du: Espazio libreak (jarraituak direnak eta hiri-espazioaren "hutsa" direnak) eta espazio partzelatuak (zatikatuak direnak eta oro har hiri-espazioaren "betea" direnak). Espazio partzelatua pribatua da, aipatutako ekipamendu publikoak ezik. Espazio libreak eta partzelatuak kategoria osagarriak dira: bataren zedarritzeak bestearen mugatzea dakar. Biak kontutan hartu beharko dira hiri-antolakuntza egokia lortzeko. Baita partzelazioak eraikin jakin batzuetarako forma eta tamaina egokia izan behar duela ere (familiabakarreko etxebizitza isolatuak, familianitzeko etxeak tarte-hormen artean, nabe industrialak…).
    - Hiri-ehundura edo hiri-sarea hiriko zati baten egitura da, urbanizazio prozesuaren emaitza dena. Bata bestetik bereizten da espazio-libreak ("kaleak") eta espazio partzelatuak ("etxeak") antolatzeko moduan. Hiri-ehundura edo hiri-sarea hainbat formatakoa izan daiteke: erregularra edo irregularra, espontaneoa edo proiektatua, ordenatua edo desordenatua, homogeneoa edo heterogeneoa… Sarearen bidez sortzen diren etxe-irlen eta kaleen tamainaren arabera "hiri-pikor" ezberdinak sortzen dira (dentsitatearekin baino, trinkotasunarekin du erlazioa).
2. Urbanizatze-prozesua eragiten duten hiru ezaugarriak, ingurune fisikoa gorabehera (Juli Estebanen arabera):
    - Bidegurutze bat egotea, bidaiariak diru-iturri baitira. Adibideak: Hereforden sorrera merkatu-hiri gisa (X-XII. mendeetan). Sakaneko Altsasu eta Irurtzun, Araba-Nafarroa bideak eta Gipuzkoara doazenen bidegurutzeetan.
    - Eraikin esanguratsu bat egotea: komentua, gaztelua, jauregia… Adibideak: Bagdad Al-Mansurren jauregiaren inguruan sortzen da, 762-767. urte-tartean. Karlsruhe, Badengo Karlos Gilen margrabeak (kondeak) jauregi gisa sortu zuen 1715ean; hiria inguruan hazi da, antzerako egitura jarraituz. Kaaba eraikin sakratua, Mekan; munduko eraikin islamdar guztiak hara orientatzen dituzte.
    - Kale-sare bat proiektatzeko nahia edo borondatezko ekintza (arrazoi politikoengatik, eskuarki). Adibidea: Tehotihuacan, Mexiko, III-VI. mendeetan teotihuakanoek sortua (200.000 biztanle izatera ailegatu omen zen). Australian Canberran hiriburua sortzea erabaki zuten 1908an, Siney eta Melbourneren arteko erdigunean zegoelako; 1911ko konkurtsoa W. B. Griffinek irabazi zuen; 45 urte geroago, aldaketa batzuekin, gauzatzen hasi zen.
3. Ingurune fisikoa edo topografiaren eragina hiriaren forman eta kokagunean (Spiro Kostofen arabera):
    - Hiria ibai bazterrean. Adibidea: Iruñea (Arga ibaia; Pompaelo hiri erromatarra, goi-ordokian ―2003an uholdeak egon zirenean, Txantrean eta Errotxapean izan ziren, ez alde zaharrean―; Nabarreriako hiribildua eta San Zernin eta San Nikolas burgoak).
    - Hiria itsaso bazterrean. EAEn esaterako, lurraldearen %15 da itsasertza, baina biztanleriaren %60 bizi da bertan. Adibidea: Donostia (La Mota gaztelu nafarra, XII. mendekoa; 1813ko bretxa, portugaldarrek eta ingelesek sortua, frantsesak hiritik botatzeko: "askatzaileek" hiria guztiz erretzen dute).
        i. Hiria ibai bazterrean, itsasotik gertu. Adibideak: Baiona (Baiona Handia ―Errobiren ezkerrean―, Baiona Ttipia ―Errobiren eskuinean― eta Espiritu Saindua ―Atturriren eskuinean, juduen auzunea―) eta Bilbo (1300ean sortua, ziurrenik Etxebarriko elizatetik Zamudioko elizatera zihoan bidean; 1375 ―Somera, Artekale eta Dendarikale― eta 1442ko ―Zazpikaleak― planoak; 1544ko *Civitates Orbis Terrarum*go irudia).
    - Hiria defentsa-toki gisa. Adibidea: Arabako Antoñana (Kanpezu) eta Labraza.
    - Hiria gailur lineal gisa. Adibidea: Gasteiz. Guardia. Aguilar Kodeskoa.
    - Hiria muinoaren gailurrean. Adibidea: Urizaharra (Araba); Ausejo (Errioxa -gaztelua Nafarroako Erresumarena-).
    - Hiria lur maldatsuan. Gesaltza-Añana (maldaren "alde"); Californiako San Francisco (maldaren "aurka").